

Donostia, 2024ko abenduaren 21a

160/24 PRENTSA OHARRA

DBUSEN ZERBITZUAK ABENDUAREN 24AN ETA 25EAN

Gabon Gaua eta Eguberri Eguna direla eta, Dbusen autobusen ordutegietan ondorengo aldaketak egingo dira:

- **Abenduaren 24a, asteartea: Gabon Gaua**

Asteartean, abenduaren 24an, Gabon Gaua dela eta, Dbusen linea guztiek 20:00ak eta 20:30ak artean amaituko dituzte zerbitzuak. **Gauean Gautxori zerbitzuak** egongo dira 00:30etik 5:00etara gutxi gorabehera. Kontsultatu ordutegien informazio guztia atxikita doan dokumentuan.

- **Abenduaren 25a, asteazkena: Eguberri Eguna**

Asteazkenean, abenduaren 25ean, Eguberri Eguna dela eta, zerbitzuen ordutegietan aldaketak egingo dira. Kontsultatu ordutegien informazio guztia atxikita doan dokumentuan.

OLENTZEROREN ETA MARI DOMINGIREN ETORRERA HIRIRA

Abenduaren 23an eta 24an Dbusen zenbait lineek geltoki aldaketak egingo dituzte Olentzeroren eta Mari Domingiren etorrera dela eta.

OLENTZEROREN ETA MARI DOMINGIREN ETORRERA AUZOETAN

Astelehena, abenduaren 23a - Antiguoa:

- **5-BENTA-BERRI 20:00etatik 21:30etara**

Matia kalearen itxiera dela eta, Matia, Benta Berri, R.M. Azkue, R.M. Azkue 32, Zarautz Hiribidea 90 eta Zarautz Hiribidea 122 beste geltoki hauetara lekualdatuko dira: **Zumalakarregi 10, Anbulatorioa, Irakasle Eskola, Unibertsitatea, Tolosa Hiribidea 112 eta Tolosa Hiribidea 138.**

Halaber, 19:00etatik aurrera, Pio Barojatik, Mikeleteetatik eta Jauregi kaletik dabilzan lineetan desbideratzeak egongo dira une jakinetan.

Asteartea, abenduaren 24a - Egia:

- **9-EGIA-INTXAURRONDO, 24-ALTZA-GROS-ANTIGUO-INTX., 27-ALTZA-INTX.-ANTIGUO-GROS, 41-GROS-EGIA-MARTUTENE eta 42-ALDAPA-EGIA 17:00etatik 19:00etara:**

Desfileak aurrera egin ahala, une jakinetan trafiko mozketak eta desbideratzeak egingo dira Egian.

Asteartea, abenduaren 24a - Bidebieta:

- **14-BIDEBIETA 16:45etik 19:15era:**

Bukaerako geldialdia egingo da Juan XXIII geltokian. Honako geltoki hauek zerbitzurik gabe geratuko dira: Julio Urkijo kaleko bi geltokiak eta Serapio Mujka. Juan XXIII-ra lekualdatuko dira.

OLENTZEROREN ETA MARI DOMINGIREN ETORRERA ERDIALDEAN

Asteartean, **abenduaren 24a, 17:45etik 19:15era** gutxi gorabehera:

- **5-BENTA BERRI, 16-IGELDO, 18-SEMINARIOA ETA 25-BENTA BERRI-AÑORGA:**

Urbietan 6an eta Urbietan 20an egingo dute bukaerako geldialdia. Askatasunaren Hiribidea 31, Okendo 5, Okendo 18, Gipuzkoa Plaza eta Boulevard 17 geltokiek ez dute zerbitzurik izango.

- **8-GROS-INTXAURRONDO:**

Bukaerako geldialdia Legazpi kalean egingo du.

Askatasunaren Hiribidea 6, Boulevard 19 eta Askatasunaren Hiribidea 19 geltokiak kenduko dira, eta Legazpi kalera lekualdatuko dira.

- **13-ALTZA:**

Boulevard 3an egingo du ibilbide bukaerako geldialdia, ohi bezala.

Askatasunaren hiribidea 21eko geltokia kenduko da.

- **19-AIETE-BERA BERA:**

Okendo 11 eta Gipuzkoa Plaza geltokiak Urbietan 6ra lekualdatuko dira.

- **21-MUTUALITATEAK-ANOETA, 26-AMARA-MARTUTENE ETA 28-AMARA-OSPITALEAK:**

Bizkaia Pasealekua-Mundaiz Zubia, Gernikako Arbola, M^a Cristina Zubia, Okendo 11, Boulevard 9 eta Boulevard 13 geltokiak zerbitzurik gabe geratuko dira. Urbietan 6an eta Urbietan 12an egingo dute azken geldialdia.

- **29-HEGO INTXAURRONDO SUR:**

Ibilbide bukaerako geldialdia Legazpi kalean egingo du.

Boulevard 15eko eta Askatasunaren Hiribidea 15eko geltokiek ez dute zerbitzurik izango.

• **31-INTXAURRONDO- OSPITALEAK- LARRATXO:**

- Aiete alderantz: Kursaal, Boulevard 15, Urbieta 6 eta Larramendi geltokiak kenduko dira. Colón pasealekura eta Lizarra kalera lekualdatuko dira (behin behineko zutoina).
- Intxaurren-Altza alderantz: Easo 27 eta Askatasunaren Hiribidea 15koa kenduko dira.

• **33-LARRATXO-INTX-ANTIGUO-BERIO ETA 40-GROS-IGARA:**

- Antiguorantz: Askatasunaren Hiribidea 18ko, Urbieta 20ko eta Zubieta Plazako geltokiak Colon eta San Martin 48ra (behin behineko zutoina) lekualdatuko dira.
- Erdialderantz: Askatasunaren Hiribidea 19 eta Askatasunaren Hiribidea 21 geltokiak kenduko dira eta Askatasunaren Hiribidea 3ra eramango dira.

• **36-SAN ROKE-ALDAKONEA:**

- San Roke alderantz: Euskadi Plaza eta Askatasunaren Hiribidea 20 geltokiak kenduko dira, eta Iparreko Geltokira eta Urbieta 12ra lekualdatuko dira.
- Aldakonea alderantz: Easo 27 eta Askatasunaren Hiribidea 19 geltokiak kenduko dira eta Askatasunaren Hiribidea 3ra eramango da.

• **45- ESTACIONES RENFE-BUS GELTOKIAK-ANTIGUO-AIETE:**

- Antiguorantz: Askatasunaren Hiribidea 18ko, Urbieta 20ko eta Zubieta Plazako geltokiak Colon eta Iparreko geltokia (behin behineko zutoina) lekualdatuko dira.
- Erdialderantz: Askatasunaren Hiribidea 31 geltokia kenduko dira eta Askatasunaren Hiribidea 3ra eramango dira.

• **46-SAN ANTONIO- MORLANS**

- Morlans alderantz: Askatasunaren Hiribidea 20 geltokia kenduko da eta Urbieta 12ra lekualdatuko da.
- San Antonio alderantz: ohiko ibilbidea egin dezake.

Oharra: beste gainerako lineek ohiko ibilbidea egingo dute.

Informazio gehiago www.dbus.eus webgunean eta 900 840 146 telefonoan.